

## Piarres Charrittonen hilberri txostena (1921-2017)

DAVANT, Jean-Louis  
Euskaltzain emeritua

Hazparneko seme, apez izana, filosofian diplomaduna, irakaslea, euskaltzalea, sail ezberdinetan nabarmendu da: Euskaldun (baserri) Gazteriako kapilau izan ondoren, Parisko Euskal Etxearen bulkatzaile nagusia, Hazparneko Lycée Technique Saint-Joseph eta Ecole d'Agriculture du Pays Basque institutu katolikoek sortzailea eta bost urtez zuzendaria, politika gizona bereziki EA alderdian eta Baionako udal kontseiluan, oroz gainetik kultura gizon jakintsu eta nekaezina: liburu andana bat idatzi du goi mailako gaiez, gainera J. Etxepare medikuaren eta P. Larzabal apezaren idazlan gehienek berrargitalpenak paratu ditu. 1985ean euskaltzain oso izendatua P. Lafitte zenaren ondotik, gramatika lanetan eta hiztegi batuan parte hartu du bereziki. Goian bego hazpandar handia.

Pierre Charritton Zabalzagarai 1921eko urriaren 19an jaio zen Hazparneko Ehulate(g)ia laborari etxean, hiriguneko atean: bi polo horien arteko lotura beti atxiki du. Frantziako legeak horretara beharturik, *Harri* erran nahi duen frantses izena eman zioten, eta ohi bezala nolabait euskaldundu. Munduko Lehen Gerla bukatu berria zen, kalte latzik utziz familian eta herrian, ber denboran frantziar nazionalismoa suspertuz euskaldungoaren bizkar. Giro bortitz horrek Piarres haurraren gogoa zinez markatu zuen bizi guzira.

Ikasketak egin zituen Hazparneko Saint-Joseph kolegio katolikoan, gero batxilergorako urteetan Uztaritzeko Saint-François (Xavier) institutu katolikoan, apeztekoak Baionako seminario handian. Ondotik filosofian ikasi zuen Erroman eta Parisen.

Bere bizitzan lanpostu ezberdin andana bat bete du: Mauleko Saint-François (d'Assise) ikastetxe katolikoan irakasle, Euskaldun (baserri) Gazteriako kapilau, Hazparneko Saint-Joseph kolegioko zuzendari, horren gain eraikitzen zituela industriako eta laborantzako lizeo famatuak. Baionako apezpikuak hortik baztertu zuten 1965eko udaberrian Txillardegi matematika irakaslearen babestera saiatu zelakoz Frantziako gobernuak euskal iheslari lagun batzuekin erbesteratu zuelarik.

Piarres bulta batez Parisen egon zen, zapata saltegi batean langile. Gero apezpikuak erretore izendatu zuten Baionako Saint-Amand parrokian. Hortik urte zenbaiten buruan Kanadara joan zen, zehazkiago Quebec probintziako Montreal hiriburura, urte pare batez irakasle.

Apezgoa utziz, Aiherrako Aña Urruty anderea esposatu zuen, Baionan plantatu ziren, eta Naiara Bilboko neska txikia adoptatu zuten. Lanbidez EHUKo irakasle izan da urte zenbaitez Donostian, Zorroagako fakultatean, erretiroa hartu arte.

Kultura gizona zen oroz gainetik, irakurle handia, ezin asea, jakitun joria gai askotan, bereziki filosofian eta prefosta erlijioan. Haatik, lumaren hartzera ez zen berenez aise lerratzen. Aho-mihizkoa zen naturalki eta funtsez. Mintzatzeko dohain izigarriak zituen, bere kultura nasaiaren elez partekatzea biziki maite zuten eta ederki egiten.

Segur balio zuten Piarresen entzutea, baina maizegi presaka gabiltza maluruski. Beste gauza bat usu faltatu zaigu: magnetofono bat edonoiz eskupean ukaitea, bereziki Euskaltzaindiko bazkarietan, eta hor gauza franko galdu zaigu izkiritotik bazter.

Bizkitartean Piarres goizik hasia zen idazten: *Eskualdunak* izeneko historia laburra euskaraz eman zuten hogeita bi urteetan, eta hogeita bostetan frantsesez *Petite histoire religieuse du Pays Basque* delakoa.

Gero bulta batez gutiago izkiriatu zuten. Beste lanik bazuen, dela irakaslegoan, dela Hazparneko ikastetxe pare horren eraikuntzan. Artetik ikasle andana bat euskaraz idaztera bulkatua zuen, bereziki Mauleko ikastetxe katolikoan, Euskaltzaleen Biltzarrak urtero antolatzen zituen lehiaketen kariara. Ondotik ber lana egin zuten Euskaldun (baserri) Gazteriako *Gazte* hilabetekarian idazle berriak sustatuz.

Hazparneko kargua eta karga utzirik badakigun bezala, jendeen eskubide zuzenez liburu pare bat idatzi zuten frantsesez. Berantago bi lan alimale burutu ditu Euskaltzaindiaren baitan: Jean Etxepare baxenabartar mediku zenaren idazlan gehienak bost liburutan bildu, eta Piarres Larzabal apez lapurtar zenarenak zazpi tomotan paratu.

Bestalde, latinetik euskarara lau itzulpen handi agertu ditu «Klasikoak» sailean: Thomas Moreren *Utopia*, Aita Vitoriaren *De Indis*, Spinozaren *Etika*, Aita Azpilkuetaren *Teologiaz eta politikaz antologia*. Gainera, gai horretaz bere oharrak eta gogoe-tak idatzi ditu *De re publica* liburuan.

Charritononen hiztegia ez dugu ahantziko, ez eta Broussain hazpandar euskaltzain, auzapez eta kontseilari orokorraz egin zuen bilduma, hau frantsesez.

Beraz, denen buru, hizlari eta predikari natural oparoak luma zinez emankorra erabili du, goi mailako gai nekeak ikertuz trebeki, euskara bero, aberats, ospetsuan. François Rabelais frantses idazle handiaren ibai azkar eta nasaia oroitaraz dezake bere indar emankorrean: hitz haragitsua, ele gihartsua, prediku kartsua.

Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1950ean, hogeita bederatzi urteetan, eta 1985ean euskaltzain oso hautatu genuen Piarres Lafitte zenaren ondoko. Gramatika batzordean parte hartu ondoren, Euskara Batuko lantaldean ari izan da urte andana batez. Ber denboran, Euskaltzaindiak Baionan duen egoitzako arduradun karguan, Iparraldeko lan akademikoak luzaz kudeatu ditu.

2017ko martxoaren 17an beste Akademia batera deitua izan da, eta pentsa dezakegu han aurkitzen duela, hainbeste kezkatzen zuten galderen erantzunekin, bertiereko bake zoriontsua.

Hala bedi.